



# PASAIA 2030 PLAN ESTRATEGIKOA

## EKINTZA PLANA

Osoko bilkurarako dokumentua



# PASAIA 2030 PLAN ESTRATEGIKOA

## EKINTZA PLANA

Osoko bilkurarako dokumentua

2024 URRIA

### **Proiektuaren zuzendaritza**

Pasaia Udala

[www.pasaia.eus](http://www.pasaia.eus)

**Laguntza teknikoa:** Isladak aholkularitza Koop. Elk.Baja

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak diruz lagundutako proiektua

# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b>	<b>1</b>
<b>2. LABURBILDUZ</b>	<b>3</b>
<b>3. PASAIA 2030 PLAN ESTRATEGIKOA</b>	<b>4</b>
IKUSPEGIA	4
HELMUGAK	6
EKINTZA PLANA	7
AGINTE KOADRO ESTRATEGIKOA	31
<b>4. PLANAREN JARRAIPENA</b>	<b>33</b>

Dokumentu honetan **Pasaia 2030 Plan Estrategikoa** egiteko egindako ibilbidea aurkezten da. Prozesu honek gako hauek izan ditu:



## OBJEKTIBITATEA

Hainbat iturritako datuetan, udalak aurretik Agenda 2030aren inguruan egindako lanketetan eta Tokiko Agenda 21aren jarraipen eta ebaluazio emaitzetan oinarrituz lan teknikoa egin da.

Prozesuaren esparruan, honako zeregin hauek gauzatu dira:

## EKARPEN TXOSTENA



## TEKNIKARI ETA POLITIKARIEN PARTE-HARTZEAZ

Ekintza Plana, elkarlana eta erantzukizuna oinarri izanik burutu da. Lan objektiboa egiteaz gain, hainbat espazio sortu dira udaleko teknikari zein politikarien iritzia eta ekarpenak jaso eta Ekintza Planean txertatzeko.

## EKINTZA PLANA



## Udal teknikari eta politikarien proposamenak

# 1

## ABIAPUNTUA eta EKARPEN TXOSTENA

Lanketa egiten hasi aurretik, udal teknikari zein politikariekin saio bat egin da 2030 Agenda eta GJH zer diren azaltzeko, eta gai horretan sentsibilizatzeko, horrela Pasaia 2030 Plan Estrategikoaren diseinuan udal langile guztien inplikazioa lortzearren.

Udalak **Garapen Jasangarrien Helburuei eta horiek osatzen dituzten helmugei egiten dien ekarpena** aztertu da ondoren, baina horra iristeko, lehenik ondorengoak egingo dira:

- Pasaia 2019-2026 Tokiko Agenda 21aren ebaluazioa eta bertatik ateratako emaitzen azterketa, ekintza bakoitzaren egokitasuna analizatzeko, hasi gabe/hasita edo geratuta dauden ekintza horietan arreta jarritz.
- Tokiko adierazleen eboluzioaren eta beste udalerriekin dagoen aldearen azterketa.
- Gobernantza dokumentuan landutako erronkak eta ibilbidearen azterketa, Pasaia 2030 Planean nola txertatu aztertuz. Dokumentu honetan landutako Ekarpen Txostena adierazle sistemaren bidez osatu da.
- 2030 Agendaren ikuspegiaren araberako azterketa, GJH eta helmugetan zentratuz.

Lanketa horretatik abiatuta, **Ekarpen Txosten osatua** idatziko da, Pasaia 2030 Agendari egindako ekarpena laburbiltzen duen dokumentu sintetikoa.

# 2

## PASAIA 2030 PLAN ESTRATEGIKOA

Abiapuntuko egoeraren azterketatik abiatuta, etorkizunean jarri da arreta, eta **Pasaia 2030 Plan Estrategikoa** definitu da, Udaleko teknikariekin eta politikariekin lankidetzan. Plan horren baitan landu dira 2030erako ikuspegia eta erronkak, Ekintza Plana, Aginte Koadro Estrategikoa eta planaren jarraipen sistema.

## IKUSPEGIA

2030ean Pasaia nortasun desberdinetako barrutiek osatutako **HERRI KOHESIONATUA** da. Herri elkartua da, horren adierazle dira lau barrutietako ekipamenduen erabilera askotarikoa eta konpartitua, eta jai eta sinbologia amankomunak, horren guztiaren gako nagusi izanik mugikortasuna, batez ere motoraren bidezko mugikortasuna.

Pertsonak erdigunean jarri ditu Pasaia, eta **NORTASUNA** duten **KOMUNITATE INKLUSIBOAK** sortu dira. Auzotarren, bizilagunen eta elkarteen arteko harremanak errespetuzkoak dira, zaintzazkoak, ingurumenarekiko begirunezkoak, azken finean, pertsonen ongizatea bermatzen duten askotariko arloetan **ERANTZUKIZUN PARTEKATUA** sustraitu da Pasaian.

Portua eta herria harmonian bizi dira, **PASAIA BIZIGARRI** eginez, badia osatzen duten herrien eta Portuaren arteko harreman marko sendoari esker. Badiaren eredian gizarte kohesioa eta ekologia lehenetsi dira, badia herriari irekiz, eremu atseginak sortuz eta ingurumenarekin, ondarearekin eta herritarrekin bat eginez.

**EKONOMIA ANITZEKO** herria ere bada Pasaia, turismo jasangarri eta aktiboa errotuta dauka, eta herritarren beharrak atzean utzi gabe garatu duen turismoa sustatu du. Itsasoarekin lotutako ekonomia ere bere egin du, ekonomia urdinaren aldeko apustua eginez, baita horrekin lotutako industria, kultura ondarea, zein enplegua indartuz ere.

Amaitzeko, eta aurreko guztia aurrera eramateko, Udal politikak **BALOREETAN OINARRITUTAKO** (hizkuntza, berdintasuna, ekologia...) **GOBERNANTZA IREKIA** bultzatzen du, barne koordinazio eraginkor bati esker eta herritarrei begirako gardentasun, kontu-emate eta parte-hartze politikak bideratuz.

## 17+1 GJH

2030 Agendak zehazten dituen 17+1 Garapen Jasangarriko Helburu guztietan eragiten da Pasaia 2030 Planean identifikatutako ekintzen bidez (helburu batzuetan modu zuzenean, beste batzuetan zeharka)

## 63 HELMUGA

Planak Agenda 2030ek ezartzen dituen 169 helmugetatik 63tan laguntzen du

## JARRAIPENERAKO 43 ADIERAZLE

Aginte koadro estrategikoa osatzen dutenak

## 8 ILDO ESTRATEGIKO

2030era begirako helburu nagusiak

## 28 PROGRAMA

Esku hartze helburu espezifikoak

## 142 EKINTZA

Ekimen edo proiektu konkretuak

# PASAIA 2030 PLAN ESTRATEGIKOA

Pasaia 2030 Plan Estrategikoa modu parte-hartzailean egin da; eta bertan sartu dira Udaleko teknikariek zein politikariek prozesuan zehar egindako bileretan identifikatutako erronka eta behar nagusiei erantzuteko ekintzak.

## IKUSPEGIA

### ZER-NOLAKO PASAIA IMAJINATZEN DUGU 2030. URTEAN?

2030ean Pasaia nortasun desberdinetako barrutiek osatutako **HERRI KOHESIONATUA** da. Herri elkartua da, horren adierazle dira lau barrutietako ekipamenduen erabilera askotarikoa eta konpartitua, eta jai eta sinbologia amankomunak, horren guztiaren gako nagusi izanik mugikortasuna, batez ere motoraren bidezko mugikortasuna.

Pertsonak erdigunean jarri ditu Pasaia, eta **NORTASUNA** duten **KOMUNITATE INKLUSIBOAK** sortu dira. Auzotarren, bizilagunen eta elkarteen arteko harremanak errespetuzkoak dira, zaintzazkoak, ingurumenarekiko begirunezkoak, azken finean, pertsonen ongizatea bermatzen duten askotariko arloetan **ERANTZUKIZUN PARTEKATUA** sustraitu da Pasaian.

Portua eta herria harmonian bizi dira, **PASAIA BIZIGARRI** eginez, badia osatzen duten herrien eta Portuaren arteko harreman marko sendoari esker. Badiaren eredian gizarte kohesioa eta ekologia lehenetsi dira, badia herriari irekiz, eremu atseginak sortuz eta ingurumenarekin, ondarearekin eta herritarrekin bat eginez.

**EKONOMIA ANITZEKO** herria ere bada Pasaia, turismo jasangarri eta aktiboa errotuta dauka, eta herritarren beharrak atzean utzi gabe garatu duen turismoa sustatu du. Itsasoarekin lotutako ekonomia ere bere egin du, ekonomia urdinaren aldeko apustua eginez, baita horrekin lotutako industria, kultura ondarea, zein enplegua indartuz ere.

Amaitzeko, eta aurreko guztia aurrera eramateko, Udal politikak **BALOREETAN OINARRITUTAKO** (hizkuntza, berdintasuna, ekologia...) **GOBERNANTZA IREKIA** bultzatzen du, barne koordinazio eraginkor bati esker eta herritarrei begirako gardentasun, kontu-emate eta parte-hartze politikak bideratuz.

## ZEINTZUK DIRA ERRONKA NAGUSIAK?

2030. urteari begira izan nahi den Pasaia horretara iristeko, herri bezala 6 erronka nagusi identifikatu dira:

### 1. LAU BARRUTI, HERRI BAT

Pasaia portuaren inguruan sortutako udalerrria da. Portua da udalerrria batzen eta zatitzen duena, jarraipenik gabeko lau barrutitan banatzen baitu. Lau barrutiek izaera eta ezaugarri desberdinak dauzkate, egoera soziala oso desberdina da, eta bakoitzak bere nortasun propioa dauka.

Etorkizunean, barruti bakoitzak bere **nortasuna mantenduko** du, baina **lau barrutien arteko kohesioa nabarmen areagotuko da** eta **herri ikuspegia** txertatuko da. Horretarako, alde batetik, udal ekipamenduen erabilera elkarbanatua izateko lanean jardungo du Udalak eta hori lortzeko gakoetako bat izango da barrutien eta badiako herrien arteko mugikortasuna jasangarria izatea (oinez, itsasontziz, bizikletaz edo garraio publikoan), eta batez ere, motoraren bidezko mugikortasuna berreskuratzea. Eta, bestetik, jai eta sinbologia amankomunaren aldeko apustua egingo du Udalak.

### 2. KOMUNITATE INKLUSIBOA DUEN HERRI BAT

Pasaia pertsona aldetik oso anitza den herria da, bai bere kokapenagatik, bai itsasoak, portuak eta horri lotutako ekonomiak hainbat lekutatik erakarri duen jendeari esker. Gainera, gizartea eraldatzen ari da eta izaera oso desberdinetako pertsonak biltzen dira herrietan: klasea, arraza, jatorria, adina, aniztasun funtzionala, hizkuntza, identitate sexuala... horiek guztiek osatzen dute herria eta komunitatea.

Etorkizunean Pasaia **pertsonak erdigunean** jarriko ditu, pertsona ororen zaintza, ongizatea, inklusioa, errespetua, beraien arteko harremanak, eta abar sustatuz. Hori guztia ez du lortuko udalak soilik zerbitzuak emanez, baizik eta **komunitate inklusiboak eta nortasundunak** sortuz, hau da, bizilagunen eta auzotarren arteko zaintza, aisialdia, harremanak lortuz, inklusio eta errespetua sustatuz eta norbanakoaren etxebizitza eremu zabalago batera eramanez, komunitaterantz.

### 3. INGURUMENA ZAIINTZEN DUEN HERRI BAT

Pasaia gero eta garrantzia handiagoa ematen dio ingurumenari, udal politikan txertatuta dagoen arloetako bat da, eta azken urteetan hori hobetzeko lanean dabil Udala, herritarren erantzukizun partekatua ere bultzatuz.

Etorkizunean, Pasaia **ingurune osasuntsua** izango du, pertsonak eta horien ongizatea zein osasuna udal politiken oinarri izanik. Gainera, **herritarrek ingurumenaren alde arduraz jokatzeko** dute, arloaren gainean beraien ekarpenak eginez eta erabakietan parte hartuz. Horretarako, udalak komunikazio eta parte-hartze eredu ireki eta gardenak ahalbidetuko ditu.

### 4. PASAIA ETA PORTUA, HERRI BAT

Herria, herritarrak eta portuak eremu batean elkar bizi behar dute. Portuko jarduerak eragina daukate herritarren bizi-kalitatean, eta herriaren onura bilatzeko eta herritarren beharrak asetzeko, ezinbestekoak dira badia osatzen duten udalen eta Portuaren arteko koordinazioa, lankidetzak eta elkarlana; azken finean, gobernantza eredu eraginkor eta ireki bat.

Etorkizunean, badiak eredu berria izango du, **gizarte kohesioko eta ekologiako** irizpideak lehenetsiko dituena. Horretarako, Pasaia eta portuaren artean harreman marko berria eraikiko da, baita herritarrekiko harreman zuzena ere, **bardia bizigarri** egiteko, bai termino sozialetan eta bai ekonomikoetan. Bestalde, naturarekin eta

ingurumenarekin, ondarearekin eta herritarrekin **errespetuzkoa den badia** lortuko da, bertako afekzioak murriztuz eta ingurumen osasuntsu bat lortuz. Eta, amaitzeko, termino ekonomikoetan ekonomia urdina bultzatuko da etorkizuneko enplegu eragile moduan.

## 5. EKONOMIA ASKOTARIKOA ETA JASANGARRIA DUEN HERRI BAT

Pasaiak hainbat elementu ditu ekonomia askotarikoa bultzatzeko eta enplegua sortzeko, hala nola, eremu naturala, itsasoa eta badia eta oso herrigune ezberdinak.

Etorkizunean, Pasaiak **turismo jasangarria eta aktiboa** sustatuko du eta turismo mota horri erantzuteko zerbitzuak garatuko ditu, beti herritarren beharrak kontuan izanik, eta herritarrentzat herri bizigarria sustatuz, eta ingurumena, hizkuntza eta etxebizitzarako sarbidea lehenetsiz. Bestalde, **ekonomia urdinaren** aldeko apustua egingo du Pasaiak, itsasoarekiko harremana bultzatuz, bertatik eratorritako ekonomia, industria zein ondarean indarrak jarritz. Norabide horretan, gainera, berebiziko garrantzia hartuko du itsasoarekin lotutako **ikerketak eta ezagutza zientifiko eta teknikoak** eta horrek enpleguan eragingo du. Horrek guztiak enplegu eta lan baldintza duinak ekarriko ditu, eta inguruko herriein sozialki arduratsuak diren jarduera berritzaileak sortuko ditu.

## 6. GOBERNANTZA EREDU BERRIA ETA MODERNOA DUEN HERRI BAT

Pasaiako Udalak pausoak emango ditu, bai barne mailan, bai herritarrei begirako komunikazioa, parte-hartzea eta gardentasuna sendotzen. Eta horretan guztian herri bezala zehaztuta dituen baloreak lehenetsiko ditu.

Etorkizunean, **governantza eredu irekia** izango du Pasaiak, **baloreetan oinarritutako** gobernantza eredua (hizkuntza, berdintasuna, ekologia...) eta "herritarrentzat eta herritarrekin gobernatzen" duena. Horretarako, **barne mailako koordinazio** eraginkor eta jarraitua dauka, eta **herritarrei begira** gardentasun, kontu-emate eta parte-hartze politikak bideratu eta gauzatuko ditu. Horretan guztian momentuko egoerara egokitutako digitalizazio eredua txertatuko du.

# HELMUGAK

## 2030 AGENDA KO HELMUGAK

Nazio Batuek onartutako 2030 Agenda globalak 169 helmuga zehazten ditu, zeintzuek 2030. urtera begira lortu nahi diren helburu zehatzak jasotzen dituzten.

Pasaia 2030 Ekintza Planak horietatik 63 helmugei erantzuten die, hau da, helmuga horietan aurrera egiteko ekintzak jasotzen ditu.

# EKINTZA PLANA

## PASAIA 2030 PLAN ESTRATEGIKOA (2024-2030)

Udal mailan modu partekatuan osatu den Pasaia 2030 Plan Estrategikoak 3 elementu nagusi ditu:

### ILDO ESTRATEGIKOA

Etorkizunera begira lortu nahi diren helburu nagusiak

### PROGRAMA 1

Helburu nagusiak lortzeko helburu zehatz edo espezifikokoak

### PROGRAMA ...

Helburu nagusiak lortzeko helburu zehatz edo espezifikokoak

### Ekintza 1

Helburuak lortzen lagunduko duten ekimen konkretuak

### Ekintza ...

Helburuak lortzen lagunduko duten ekimen konkretuak

Pasaia 2030 Plan Estrategikoa zenbakitan:


**17+1** GJH

**8** ILDO ESTRATEGIKO


**28** PROGRAMA

**142** EKINTZA

Jarraian, Plan Estrategikoa osatzen duten 138 ekintzen banaketa zehazten da, Garapen Jasangarrirako Helburuen arabera:



Eta ekintzen banaketa bloke handien arabera honako hau da:



Ondoren, Pasaia 2030 Plan Estrategikoa osatzen duten **ILDO ESTRATEGIKO** eta **PROGRAMAK** aurkezten dira

IE 1. POLITIKA PUBLIKOETAN ZEHARKAKOTASUNA, ERAGINKORTASUNA ETA GARDENTASUNA SUSTATU	IE 2. HERRI GARAPENEAN LURZORUJAREN ERABILERA JASANGARRIA EGIN ETA GIZA KOKALEKUEN INKLUSIBITATEA, SEGURTASUNA ETA NORTASUNA INDARTU	IE 3. INGURU OSASUNTUA BERMATU, PERTSONEN BIZIMODU OSASUNGARRIA BERMATUZ	IE 4. BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA EKOIZPEN ETA KONTSUMO MODALITATE JASANGARRIAK SUSTATU	IE 5. ENERGIA ESKURAGARRIA, JASANGARRIA ETA MODERNOA DUEN UDALERRI EREDUA SUSTATU ETA KLIMA-ALDAKETAREN ETA HAREN ONDORIOEN AURKA EGITEKO NEURRIAK HARTU	IE 6. TOKIKO EKONOMIAREN HAZKUNDEA ETA LAN DUINA SUSTATZEKO POLITIKAK BULTZATU	IE 7. EUSKARA ETA KULTURA ZABALDU ETA SENDOTZEA HELBURU DUEN PASAIA	IE 8. PERTSONAK ARDATZ IZANIK, SARBIDEA BERMATU ONGIZATE, BERDINTASUN ETA OINARRIZKO ZERBITZUETARA
P.1.1 Udal sailen arteko koordinazio eremuak ezarri eta zeharkako politikak indartu	P.2.1 Herriaren birgaitzea bultzatu, hiriaren garapen inklusibo eta jasangarria oinarri izanik	P.3.1 Alrearen kalitatearen eta soinu egokj baten alde lan egin pertsonen ongizatea ziurtatzeko	P.4.1 Baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra handitu eta ur-hormikuntzaren jasangarritasuna lortu, edateko uraren kalitatea kontutan izanik	P.5.1 Udal plangintzan eta politikan energiaren arloko neurriak barnerratu eta horien kudeaketa egokia egin	P.6.1 Pasaia Badiako ekonomia urdinaren poloa garatzea sustatu	P. 7.1 Pasaian euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko lanean jarraitu sektore eta pertsona guztiei euskaraz aritzeko aukera emanaz	P. 8.1 Pertsona guztiek gizarte zerbitzuarako sarbidea izan dezaten bermatu
P.1.2 Udalaren gardentasuna indartu, politika publikoetan herritarren parte-hartze aktiboa sustatu eta udalaren eta herritarren arteko komunikazioa landu	P. 2.2 Ura, eremu lehorra eta naturala konektatuko dituen mugikortasun iraunkor eta seguruaren alde lan egin	P.3.2 Arrisku eta jarduera ekonomikoek sor ditzaketen ingurumen-inkaktuak kudeaketa aktiboa egin	P.4.2 Pertsona guztientzako ur-saneamendua bermatu eta uraren kalitatea hobetu isuriak kontrolatuz eta ekidinez	P. 5.2 Energia jasangarria eta modernoa sustatu udal eraikidn eta argiteria publikoan, energia eraginkortasuna hobetzeko	P.P 6.2 Pasaia Badiako enpresen trantsizio hirukoitzat bultzatu, industria eta hiri-ekonomia indartuz	P. 7.2 Hezkuntza eta kultura eskaintza zabala sortu eta kulturalki herri aktiboa izateko ibilbidea egin	P. 8.2 Pasaian bizikidetzatza eta aniztasuna landu
	P. 2.3 Lehorreko eta itsasoko bizitzatza babestu, kontserbatu eta ezagutzera eman biodibertsitatearen galera ekiditeko	P.3.3 Portuko jardueraren jarraipena sustatu eta herritari ireki, inguru osasungarria sustatuz	P.4.3 Hondakinen sorrera murriztu, prebentzio, munitzeta, birziklapen eta berreraibleran oinarrituz	P. 5.3 Energia eskuragarria, jasangarria eta modernoa sustatu pertsona guztiontzat, energia eraginkortasuna hobetzeko	P. 6.3 Turismo jasangarria indartu, bertako kultura eta tradizioa, kultura-ondarea eta produktuak sustatuz		P. 8.3 Udalerria berdintasun egoerara heltzeko bitartekoak jarri ikuspegi feminista batetik
		P.3.4 Pasaia Badiako Aktiboa landu, guztiontzat eta adin guztietarako bizimodu osasungarria bermatzeko	P.4.4 Udala erosketatza eta kontratazio publiko arduratsua eta jasangarria duen eredu batera gerturatu	P. 5.4 Klima aldaketaren eta bere ondorioen aurka egiteko Berotegi Efektuko Gasen isuriak murriztu eta haren aurrean erresilientzia izateko eta berari egokitzeko ahalmena izateko neurriak abian jarri	P. 6.4 Enplegu nahikoa, kalitatezkoa eta etorkizuna duena sortu		P. 8.4 Haur, nerabe eta gazteen eskubideak bermatu eta beharrik ase
		P.3.5 Pasaian balioetan oinarritutako jarduera fisikoa eta kirola sustatu					

# IE 1.

POLITIKA PUBLIKOETAN  
ZEHARKAKOTASUNA,  
ERAGINKORTASUNA ETA  
GARDENTASUNA SUSTATU

# IE1. POLITIKA PUBLIKOETAN ZEHARKAKOTASUNA, ERAGINKORTASUNA ETA GARDENTASUNA SUSTATU

---

## **P.1.1 Udal sailen arteko koordinazio eremuak ezarri eta zeharkako politikak indartu**

1.1.1 Agenda 2030aren kudeaketa aktiboa egin

1.1.2 Udal barnean Agenda 2030aren kontu ematea erraztu

1.1.3 Eskola Agenda 2030ekin koordinatu, Pasaia Agenda 2030eko gaiak bertan ere lantzeko.

1.1.4 GIS korporatiboa garatu eta eguneratua mantendu.

1.1.5 Udal sailen berrantolaketa eta langileen baldintzak hobetzeko lanketa egin.

## **P.1.2 Udalaren gardentasuna indartu, politika publikoetan herritarren parte-hartze aktiboa sustatu eta udalaren eta herritarren arteko komunikazioa landu**

1.2.1 Udaleko komunikazioa hobetzeko giza-baliabideak ezarri.

1.2.2 Udal-ekimenetan lau barrutiek bakar bat osatzen dutela komunikatzeko jarraibideak zehaztu.

1.2.3 Elkarte eta eragileen mapa eraiki.

1.2.4 Herritarrei zuzendutako ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazioa egin eta Agenda 2030ekin lerrokatu.

1.2.5 Udalaren ingurumen eta Agenda 2030en informazioa herritarren eskura jarri, web orriaren bidez.

## IE 2.

HERRI GARAPENEAN LURZORUAREN  
ERABILERA JASANGARRIA EGIN ETA  
GIZA KOKALEKUEN INKLUSIBITATEA,  
SEGURTASUNA ETA NORTASUNA  
INDARTU

## IE 2. HERRI GARAPENEAN LURZORUAREN ERABILERA JASANGARRIA EGIN ETA GIZA KOKALEKUEN INKLUSIBITATEA, SEGURTASUNA ETA NORTASUNA INDARTU

---

### **P.2.1 Herriaren birgaitzea bultzatu, hiriaren garapen inklusibo eta jasangarria oinarri izanik**

2.1.1 Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra (HAPO) eguneratu eta Donibane eta San Pedroko herrigune historikoak birgaitzeko Plan Berezia birplanteatu.

2.1.2 50 urtetik gorako eraikinek eraikinaren egoerari buruzko ziurtagiria eskuratzea sustatu eta horien jarraipena egin

2.1.3 Pasaia gune tentsionatu izendatu.

2.1.4 Pasaia Etxebizitza Plana diseinatu eta bertako neurriak martxan jarri.

2.1.5 Lau barrutietan eraberritze-lanak egiten jarraitu, berroneratze-planen edota "Poblado, Salinas eta Andonaegi bizitegirako hiri-eremuak berroneratu, birgaitu eta kudeatzeko Plan Bereziaren" bitartez.

2.1.6 Antxo barrutiaren birgaitzea burutzeko proiektua aurrera eraman.

2.1.7 Natura eta herrigunearen arteko trantsizio eremua ordenatu eta antolatu.

### **P.2.2 Ura, eremu lehorra eta naturala konektatuko dituen mugikortasun iraunkor eta seguruaren alde lan egin**

2.2.1 Mugikortasun Iraunkorrerako plana egin eta bertako ekintzak aurrera eraman.

2.2.2 Udalerriko irisgarritasun-planeko ekintzak aurrera eraman.

2.2.3 Bizikletak alokatzeko zerbitzua hobetu.

**P.2.3 Lehorreko eta  
itsasoko bizitza  
babestu, kontserbatu  
eta ezagutzera eman,  
biodibertsitatearen  
galera ekiditeko**

2.3.1 Uliá-Pasaiako landa parkea antolatu Donostiako Udalarekin koordinatuz, eta definitzen diren ekintzak aurrera eraman.

2.3.2 Jaizkibelgo mugikortasuna ordenatu eta arautu beste erakundeekin elkarlanean.

2.3.3 Jaizkibel eta Uliako Kontserbazio Bereziko Eremuen kudeaketa aktiboa egin.

2.3.4 Nekazaritzak eta abeltzaintzak paisaian eta naturan duten balioa balioetsi, bertako paisaia mantentzeko eta guné degradatuak berreskuratzeke.

2.3.5 Espezie inbaditzaileekin lanean jarraitu, erakundeen arteko elkarlana eta koordinazioa ahalbidetuz.

2.3.6 Ingurune naturalaren balioa ezagutarazteke eta horiek behar bezala mantentzeko jardunbide egokiak dibulgatzeko kanpainak egin Pasaiako eragileekin batera.

2.3.7 Itsasoak eta bertako biodibertsitateak udalerrian duen garrantzia balioetsi, eta horiek zaintzeko jardunbide egokiak zabaldu Pasaiako eragileekin batera.

# IE 3.

INGURU OSASUNTSUA BERMATU,  
PERTSONEN BIZIMODU  
OSASUNGARRIA BERMATUZ

# IE 3. INGURU OSASUNTSUA BERMATU, PERTSONEN BIZIMODU OSASUNGARRIA BERMATUZ

---

## **P.3.1 Airearen kalitatearen eta soinu egoki baten alde lan egin, pertsonen ongizatea ziurtatzeko**

3.1.1 Udalerriko airearen kalitateari buruzko informazio hobe izateko tresnak jarri.

3.1.2 Zarata ordenantza onartu.

3.1.3 Babes Akustiko Bereziko Eremuak (BABE) izendatzeko neurketak egin, izendatu eta planak garatu.

3.1.4 Zarata kutsaduraren murrizketa egin.

3.1.5 Zonalde lasaiak babestu udalerrian.

3.1.6 Zarataren aurreko prebentzio-ekintzak aurrera eraman.

3.1.7 Zarata maparekin lotuta ez dauden ekintzak aurrera eraman.

3.1.8 Informazio akustikoa zabaldu eta kontzientziazio eta heziketa kanpainak egin.

## **P.3.2 Arriskuek eta jarduera ekonomikoek sor ditzaketen ingurumen-inpaktuen kudeaketa aktiboa egin**

3.2.1 Pasaiaiko Larrialdi Plana ezarri, modu sistematikoan berrikusi eta beharrezkoa den kasuetan egokitu.

3.2.2 Pasaiaiko Larrialdi Planak ematen dituen gomendioak eta ezarritako protokoloak jarraitu.

3.2.3 Donibanen suteen kontrako protokolo bat ezarri eragileekin koordinatuta.

3.2.4 Udaleko jarduera eta establezimenduetako Autobabes Planak egin.

3.2.5 Udalerriko jardueren erregistroa egin: legeztatuak zein legeztatuta ez daudenak.

3.2.6 Udalerriko jarduera zaharren lizentzia izapideen egoera berrikusi, eta beharrezkoa den kasuetan izapidetzea sustatu, behar bezalakoa izan arte.

3.2.7 Udal lokaletan egiten diren jardueri neurri zuzentzaileak ezarri.

**P.3.3 Portuko jardueraren jarraipena sustatu eta herriari ireki, inguru osasungarria sustatuz**

3.3.1 Portuko jarduerak Eusko Jaurlaritzan legeztatzeko kudeaketak burutu.

3.3.2 Portuan eta bertako jardueren obra espedienteetan ingurumen irizpideak txertatu.

3.3.3 Portuarekin maila teknikoan harremana eta elkarlana berreskuratu.

3.3.4 Pasaiaren eta Portuaren tradizioa biziberritu, eta badiaren erabilera sustatu; ekintzak, kirol probak... bertan egin.

**P. 3.4 Pasaia Badia Aktiboa landu, guztiontzat eta adin guztietarako bizimodu osasungarria bermatzeko**

3.4.1 Herri aktiboagoa eta osasuntsuagoa sustatu: herritarren artean kirolaren eta jarduera fisikoaren praktika sustatu.

3.4.2 Kirol ekipamenduen diagnostia egin; horien egoera eta gabezia detektatu, konpondu eta hobetzeko lanak eta inbertsioak egin.

**P. 3.5 Pasaian balioetan oinarritutako jarduera fisikoa eta kirola sustatu**

3.5.1 Eskola kirola modu bateratuan lantzen jarraitu.

3.5.2 Kirolean hizkuntza eta generoa zaintzeko baliabideak jarri.

3.5.3 Kirol eskaintza dibertsifikatua ziurtatu eta kirol minorizatuak ezagutzera eman.

3.5.4 Begirale, entrenatzaile, eta hezitzaileen formakuntza teknikoa egin, baina batez ere balioetan oinarrituriko formakuntza sustatu.

3.5.5 Kirol arloko dirulaguntzen gaineko lanketa egin, eraginkorrago izateko eta banaketa egokiagoa egiteko.

3.5.6 Kirol aholkularitza kontseilua berpiztu.

# IE 4.

BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA  
EKOIZPEN ETA KONTSUMO  
MODALITATE JASANGARRIAK  
SUSTATU

# IE 4. BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA EKOIZPEN ETA KONTSUMO MODALITATE JASANGARRIAK SUSTATU

---

**P.4.1 Baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra handitu eta ur-hornikuntzaren jasangarritasuna lortu, edateko uraren kalitatea kontuan izanik**

- 4.1.1 Udal eraikinen eta instalazioen ur-kontsumoak neurtu eta kontrolatu.
- 4.1.2 Ur-horniduraren sarean egon daitezkeen ur-ihesak detektatzeko eta zuzentzeko protokoloa egin, eta ur kontsumoen jarraipen eta kontrola sistematizatu.
- 4.1.3 Uraren zikloaren efizientzia hobetzeko proiektua burutu.
- 4.1.4 Ur-horniduraren sarean dauden amiantoeko hodiak kentzeko plangintza egin.
- 4.1.5 Ur-horniduraren kalitatearen egoera aztertu eta komunikatu.

**P. 4.2 Pertsona guztientzako ur-saneamendua bermatu eta uraren kalitatea hobetu, isuriak kontrolatuz eta ekidinez**

- 4.2.1 Donibaneko ur zikinen bilketa bukatu.
- 4.2.2 Ur -saneamendu sistemara lotu gabeko isuri-puntuak kontrolatu.
- 4.2.3 Arazketa-sistema autonomoak inbentariatu eta kontrolatu.
- 4.2.4 Badiako uraren kalitatea zaindu, kontrola egin eta herritarrei horren berri eman.
- 4.2.5 Lohiak eta itsas hondoaren kalitatea ikertzeko bideragarritasuna aztertu.

**P. 4.3 Hondakinen sorrera murriztu, prebentzio, murrizketa, birziklapen eta berrerabileran oinarrituz**

- 4.3.1 Hiri-hondakinen prebentzioa eta gaikako bilketa indartu, ekonomia zirkularra sustatzeko planaren bidez.
- 4.3.2 Hondakinei buruzko ordenantza eguneratu.
- 4.3.3 Pasaian dauden hondakinak isurtzeko puntu ez-kontrolatuak identifikatu eta kontrolatu.
- 4.3.4 Eraikuntza eta Eraispeneko Hondakinei buruzko kudeaketa egokia egiaztatzeko irizpideak ezarri.

**P. 4.4 Udala erosketa eta kontratazio publiko arduratsua eta jasagarria duen eredu batera gerturatu**

4.4.1 Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen ibilbide orrian ezarritako ekintzak aurrera eramán.

4.4.2 Udál establezimenduen edo jardueren ingurumen alderdiak ezagutu, kontsumoen gaineko azterketa egin eta neurriak jarri ingurumen inpaktuak murrizteko.

4.4.3 Pasaian antolatzen diren ekitaldietan edo jardueretan ingurumen baldintzak ezarri.

# IE 5.

ENERGIA ESKURAGARRIA,  
JASANGARRIA ETA MODERNOA DUEN  
UDALERRI EREDUA SUSTATU ETA  
KLIMA-ALDAKETAREN ETA HAREN  
ONDORIOEN AURKA EGITEKO  
NEURRIAK HARTU

# IE 5. ENERGIA ESKURAGARRIA, JASANGARRIA ETA MODERNOA DUEN UDALERRI EREDUA SUSTATU ETA KLIMA-ALDAKETAREN ETA HAREN ONDORIOEN AURKA EGITEKO NEURRIAK HARTU

---

## **P 5.1 Udal plangintzan eta politikan energiaren arloko neurriak barneratu eta horien kudeaketa egokia egin**

5.1.1 Udal ekipamendu publikoetan arrazoizko energia kontsumoa egitera bideraturiko ohitura eta jardunbide egokiak sustatu, bai udal langile bai erabiltzaileen artean.

5.1.2 Oarsoaldeko Energia eta Jasangarritasun Mahaian parte hartu.

## **P 5.2 Energia jasangarria eta modernoa sustatu udal eraikin eta argiteria publikoan, energia eraginkortasuna hobetzeko**

5.2.1 Udal ekipamenduen eta argiteria publikoaren kudeaketa eta energia kontabilitate zorrotza egin, kontsumoak kontrolpean izate aldera.

5.2.2 Udal ekipamenduetako eraginkortasun energetikoa hobetu.

5.2.3 Argiteria publikoan teknologia eta kudeaketa-sistema berriak txertatu.

5.2.4 Udal flotan ibilgailu elektrikoak progresiboki txertatu, eta ibilgailuak kargatzeko guneak jartzen jarraitu

5.2.5 Udal eraikinetan berrikuntzak egiterakoan energia berriztagarriak progresiboki txertatu, kasuan kasu teknologia egokiena aukeratuz.

## **P 5.3 Energia eskuragarria, jasangarria eta modernoa sustatu pertsona guztiontzat, energia eraginkortasuna hobetzeko**

5.3.1 Zaurgarritasun energetikoa pairatzen duten familiei laguntzak eman eta akonpainamendua egin.

5.3.2 Etxebizitza eta zerbitzuen sektorean tokiko energia sorkuntza berriztagarria sustatu.

5.3.3 Energiaren arrazoizko erabilera sustatu, sentsibilizazioaren bidez eta sektore ezberdinekin.

5.3.4 Euronet 50/50 ikastetxeetan energia aurrezteko helburu duen ekimena zabaldu, sendotu eta ezagutzera eman.

5.3.5 Udalerrian pobrezia energetikoaren gaia lantzeko urratsak egin.

**P 5.4 Klima  
aldaketaren eta bere  
ondorioen aurka  
egiteko Berotegi  
Efektuko Gasen  
isuriak murriztu eta  
haren aurrean  
erresilientzia izateko  
eta berari egokitzeko  
ahalmena izateko  
neurriak abian jarri**

5.4.1 Pasaiaiko Klima eta Energia Plana onartu eta aurkeztu.

5.4.2 Pasaiaiko Klima eta Energia Plana aurrera eraman.

5.4.3 Pasaiaiko egoitzaetik klima aldaketaren eraginari buruzko azterketan garrantzitsua egiten duen Azti bezalako erakundeekin harremanak estutu eta herritarrei egiten ari den lanaren berri eman.

# IE 6.

TOKIKO EKONOMIAREN HAZKUNDEA  
ETA LAN DUINA SUSTATZEKO  
POLITIKAK BULTZATU

# IE 6. TOKIKO EKONOMIAREN HAZKUNDEA ETA LAN DUINA SUSTATZEKO POLITIKAK BULTZATU

## P 6.1 Pasaia badien Ekonomia Urdinaren Poloa garatzea sustatu

6.1.1 Ekonomia Urdinaren Poloa kudeatzeko gobernantza eta antolakuntza eredu landu.

6.1.2 Ekonomia Urdinaren Poloa Plan Estrategikoa diseinatu eta garatu.

6.1.3 Ekonomia Urdinaren Poloa osatzen duten proiektu eraldatzaileak garatu gainerako eragileekin elkarlanean.

## P 6.2 Pasaia enpresen trantsizio hirukoitza bultzatu, industria eta hiri-ekonomia indartuz

6.2.1 Enpresei aholkularitza eman, enpresa berritzaileagoak eta iraunkoragoak sortzeko.

6.2.2 Enpresetan trantsizio digitala eta berrikuntza bultzatu.

6.2.3 Enpresetan trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatu.

6.2.4 Enpresetan trantsizio soziodemografikoa eman dadin sustatu.

6.2.5 Pasaian hiri-ekonomia iraunkoraren sistema sustatzeko bideak jarri.

6.2.6 Pasaian garatuko den zilarrezko ekonomia bultzatu.

## P 6.3 Turismo jasangarria indartu, bertako kultura eta tradizioa, kultura-ondarea eta produktuak sustatuz

6.3.1 Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa zabaldu udalerriko establezimenduetan.

6.3.2 Turismoaren eraldaketaren aldeko sustapena egin.

6.3.3 Eskualdeko turismo-marketinezko plana egin eta garatu.

6.3.4 Lehendik dagoen itsas ondarea bultzatu eta baliabide berriak sustatu, eta itsasoko baliabideen babes eta aprobetxamendu iraunkorra bermatu Pasaian.

6.3.5 Pasaia Itsas Festibalean ingurumen-irizpideak barneratzen jarraitu.

6.3.6 Kirol turismo aktiboa garatu udalerrian.

## P 6.4 Enplegu nahikoa, kalitatezkoa eta etorkizuna duena sortu

6.4.1 Pertsonenganako arreta, aukera-sektore moduan garatu.

6.4.2 Kolektibo ahulenen gizarteratzea eta laneratzea sustatu.

# IE 7.

EUSKARA ETA KULTURA ZABALDU ETA  
SENDOTZEA HELBURU DUEN PASAIA

# IE 7. EUSKARA ETA KULTURA ZABALDU ETA SENDOTZEA HELBURU DUEN PASAIA

---

## **P 7.1 Pasaian euskararen ezagutza eta erabilera handitzeko lanean jarraitu, sektore eta pertsona guztiei euskaraz aritzeko aukera emanaz**

7.1.1 Aisia, kirola eta kultura euskara mundu ludikoarekin lotzeko tresna izatea.

7.1.2 Helduen euskalduntze-alfabetatzea sustatu.

7.1.3 Hezkuntza formala euskara indartzeko ezinbesteko elementua izatea.

7.1.4 Lan-mundua euskalduntzeko bideak eta estrategiak sustatu.

7.1.5 Euskararekin eta herriarekin konprometitutako merkataritza eta ostalaritza sustatu.

7.1.6 Gazteekin eurekin landu identitatea sendotzeko baliagarriak diren egitasmoak.

7.1.7 Euskararen sustapenean Udala eredu eta sustatzaile izatea.

7.1.8 Bokale Pasaiaiko Euskararen Aholku Batzordea sendotu eta dinamizatu.

## **7.2 Hezkuntza eta kultura eskaintza zabala sortu eta kulturalki herri aktiboa izateko ibilbidea egin**

7.2.1 Hezkuntza arautuaren arloan herritarren beharrak ezagutu eta behar horiei erantzun.

7.2.2 2025-2030 Kulturaren Plan Estrategikoa egin.

7.2.3 Pasaiaiko Kultur Mahaia eratu.

7.2.4 Itsas festibalari buruzko hausnarketa egin eta hobekuntzak planteatu.

7.2.5 Liburutegiak proiektu kulturalaren barruan sartu.

7.2.6 Musika Fundazioaren antolamendua eta funtzioak berrantolatu.

7.2.7 Kultur aretoen kudeaketa eraginkorra lortu.

7.2.8 Pasaiaiko ondarea eta herriari buruzko ezagutza zabaldu.

7.2.9 Jaien antolamendua amankomuna izateko kudeaketa egiten jarraitu.

# IE 8.

PERTSONAK ARDATZ IZANIK,  
SARBIDEA BERMATU ONGIZATE,  
BERDINTASUN ETA OINARRIZKO  
ZERBITZUETARA

# IE8. PERTSONAK ARDATZ IZANIK, SARBIDEA BERMATU ONGIZATE, BERDINTASUN ETA OINARRIZKO ZERBITZUETARA

## **P 8.1 Pertsona guztiek gizarte zerbitzuetarako sarbidea izan dezaten bermatu**

- 8.1.1 Pasaia HerriLab estrategia aurrera eraman.
- 8.1.2 Hirugarren adineko pertsoneri zuzenduriko gizarte zerbitzuak eta bereziki eguneko arreta zentroak deszentralizatu.
- 8.1.3 Pasai Donibanen eta Antxon tutoretzapeko etxebizitzaren beharra aztertu, eta beharra egotekotan neurriak hartu.
- 8.1.4 Udalak inklusioaren arloan estali ezin dituen gizarte zerbitzuen beharrak eskualde edo inguruko herrien bitartez bideratu.
- 8.1.5 Adin txikiko pertsonen babesa bermatzeko lan egiten jarraitu.
- 8.1.6 Aniztasun funtzionala duten pertsonak herrian integratuak izateko hausnarketa egin.

## **P 8.2 Pasaian bizikidetzaren eta aniztasuna landu**

- 8.2.1 Kanpotik etorritako pertsonen gizarteratzean arreta berezia jarri eta horiek herrian integra daitezzen bultzatu.
- 8.2.2 Bertako biztanleak sentibilizatu, migratzaileen integrazioa "arazo" bezala hauteman ez dadin.
- 8.2.3 Gatazkak kudeatzeko taldeak udalerrira osoan lan egiteko antolakuntza eta planifikazioa zehaztu.
- 8.2.4 Bizikidetzaren Plana diseinatu eta udalerrira osora zabaltzeko.

## **P 8.3 Udalerria berdintasun egoerara heltzeko bitartekoak jarri ikuspegi feminista batetik**

- 8.3.1 Gobernu ona sustatu, herritarren arteko berdintasunean aurrera egiteko.
- 8.3.2 Emakumeen eta emakume mugimenduen ahalgaitasun indibidual, kolektibo, sozial eta politikorako prozesuak indartu.
- 8.3.3 Ekonomia eta gizarte antolakuntza eraldatu ikuspegi feministatik.
- 8.3.4 Indarkeria matxistatik gabeko bizitzaren alde lan egin.
- 8.3.5 Udalerria LGTBI komunitatearentzat bizigarri bihurtu.
- 8.3.6 II Berdintasun Planaren balorazioa egin eta plana eguneratu.

## **P 8.4 Haur, nerabe eta gazteen eskubideak bermatu eta beharrak ase**

8.4.1 Haur eta nerabeen planaren hausnarketa egin, erabaki zein estrategia jarraituko den, eta hori plangintza batean txertatu.

8.4.2 Haur eta nerabeen parte-hartze foroen sustapena, zabalkundea eta jarraipena egin.

8.4.3 Haur eta nerabeen parte-hartzea bermatzeko sistemaren antolaketarekin jarraitu eta beste sail batzuetara zabaltzeko aukera aztertu.

8.4.4 Haur, nerabe eta gazteen arloan ekintza komunitarioa eman dadin urratsak egin.

8.4.5 Ludoteka ekipamenduak dagoen eskariari egokitu; baita bertako zerbitzu zein programak ere.

8.4.6 Gaztelekuen ekipamenduak hobetu, baita bertako zerbitzu zein programak ere.

# AGINTE KOADRO ESTRATEGIKOA

## JARRAIPENERAKO ADIERAZLE SISTEMA

Pasaia 2030 Plan estrategikoaren helburua da 2030 Agendak zehazten dituen helburuak lortu eta udalerrri jasangarriago bat lortzeko lan ildo nagusiak definitzea.

**Aginte Koadro Estrategikoa** osatzen duten adierazleak planaren eraginkortasuna neurtzeko tresna egokia dira, urtero horiek kalkulatu eta esperotako eboluzioa ikusi eta horien jarraipena egiteko aukera emango baitute.

Jarraian, Agenda 2030ek zehazten dituen 17+1 Garapen Jasangarrirako Helburuen egoera eta eboluzioaren jarraipena egiteko Pasaia 2030 Plan estrategikoarekin lotutako Aginte Koadro Estrategikoa zehazten da:



1. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunak.
2. Gizarte Larrialdietarako laguntzen onuradunak.



3. Lehen sektorearen Balio Erantsi Gordina.



4. Bizi-itxaropena (emakumezkoak eta gizonezkoak).
5. Udalerriko ibilgailu-parkea.
6. Oinezkoen eta bizikleta bideen azalera.
7. Trafiko istripuen ondoriozko lesioen biktimak.



8. Udalerriko matrikulazioa, ikastetxeetako titulartasunaren arabera.
9. Gutxienez bigarren mailako ikasketak gainditu dituzten pertsonak (emakumezkoak eta gizonezkoak bereizita).
10. Udalerrian Eskolako Agenda 2030 egitasmoa duten ikastetxeetako ikasleak.



11. Udal korporazioan dauden emakumeen ehunekoa.
12. Emakumeen batez besteko errenta.
13. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak.



14. Udal administrazioaren sareko ur-kontsumoa.
15. Kontrolik gabeko ur-kontsumoa.
16. Hondakin urak tratatzeko sistema egokiak dituzten eta saneamendu-sarera lotuta dauden udalerriko etxebizitzak (Tokikoa da, erraz daukazue lortzeko?)
17. Hondakin urak tratatzeko sistema egokiak dituzten, baina saneamendu-sarera lotuta ez dauden etxebizitzak (Tokikoa da, erraz daukazue lortzeko?)



- 18. Energia elektrikoaren kontsumoa biztanle eta urteko.
- 19. Tokiko administrazioaren energia-kontsumo osoa.
- 20. Energia berriztagarrien ekoizpena.



- 21. Langabezia-tasa (emakumezkoak eta gizonezkoak bereizita).
- 22. BPG biztanleko.



- 23. Enpresen sorrera. Establezimenduen saldo garbia.
- 24. Udalerriko behin betiko jarduera-lizentzien portzentajea (portukoak kanpo).



- 25. Etxebizitza babestuen parkea.
- 26. Adineko pertsonentzako egoitzetako plaza kopurua.
- 27. Eguneko zentroetan adineko pertsoneri zuzendutako plaza kopurua.
- 28. Adineko pertsoneri zuzendutako etxez etxeko laguntza zerbitzua.
- 29. Immigrazio-tasa.



- 30. Lurzoru artifizializatua.
- 31. Parke, lorategi eta hiri-berdeguneek hartzen duten azalera.



- 32. Etxeko eta merkataritzako hondakinen sorrera biztanle bakoitzeko.
- 33. Etxeko eta merkataritzako hondakinen gaikako bilketaren tasa.
- 34. Erosketa eta kontratazio publiko berdea: ingurumen-klausulak dituzten lizitazioen kopurua.



- 35. Udalerriko berotegi-efektuko gasen isuriak, biztanle eta urteko (industria eta lehen sektorea kanpo).
- 36. Udalaren berotegi-efektuko gasen isuriak, biztanle eta urteko.



- 37. Estuarioko uraren kalitatea: egoera ekologikoa (3 estazioetan).
- 38. Kostaldeko uraren kalitatea: egoera ekologikoa.



- 39. Babes bereziko azalera, udalerraren azalera osoarekiko.



- 40. Herritarrek parte hartzeko aurrez aurreko mekanismoen batzarrak.



- 41. Garapenerako nazioarteko laguntzetara zuzendutako udal aurrekontua.



- 42. Euskararen ezagutza.
- 43. Euskararen erabilera.

# PLANAREN JARRAIPENA


Pasaiaiko Udaleko antolaketa barrutien arabera sakabanatuta dago, bai maila politikoan baita maila teknikoan ere. Azken horretan udal langileak lau barrutietan kokatzen diren eraikinetan banatuta daude.

Pasaia 2030 Plan Estrategikoa sail guztien arteko koherentzia eman nahi duen plangintza izanik, gobernantza eredu bat diseinatzeko lanketa egin zuen Udalak (2023) politikari eta teknikariek elkarlanean. Horrela, adostu zen barne-antolakuntza eta koordinazio eredu berri baten beharra, eta bertatik erabaki zen **Sailarteko Mahaia** sortzea, non udal sail guztiek parte hartuko duten Pasaia 2030 Plan Estrategikoaren baitan sortzen diren beharrak asetzeko, urtean 4 bilera eginez.

Bestalde, herritarren parte-hartzea sustatzen da, eta talde egonkorrek arloka lan egiten dute; batez ere gizarte gaiak lantzen dira. Horrez gain, udaleko gaiak lantzeko **Barrutietako Herritarren Batzarrak** egituratzen ari dira udalerrian.

Pasaia 2030 Plan Estrategiko honetan ezarritako helburuak lortzeko, beharrezkoa izango da pertsona guztien lankidetzeta eta konpromisoa, bai udal barruan, bai Pasaiaiko herritarren aldetik ere. Hori dela eta urtero kudeaketa eta jarraipena egingo da, eta emaitzak herritarrekin partekatuko dira.

Jarraipena egiteko, ondoren adierazten den urteko kudeaketa zikloa aurreikusten da:



Eredu horretatik abiatuta, eta gaur egun udalerrian dauden egiturak aprobetxatuz, planaren jarraipena modu partekatuan egingo da, herritarrekin eta udaleko teknikariek lankidetzan:

- **Udaleko teknikariak:** udaleko teknikarien ardura izango da planean jasotako ekintzak gauzatzea, horri buruzko informazioa helaraztea eta aginte koadroko adierazleak kalkulatzeko beharrezko datuak ematea. Ingurumen teknikaria izango da momentuz planaren jarraipena eta adierazleen kalkulua egingo duen arduraduna, betiere, Sailarteko Mahaiko gainerako teknikariek elkarlanean.
- **Sailarteko Mahaia:** ebaluazioaren emaitzak eta adierazleen eboluzioa aztertuko duen taldea izango da. Lortutako emaitzetan oinarrituta, talde horrek hurrengo urterako lehentasun nagusien proposamena egingo du, eta horiek udal aurrekontuetan sartuko ditu.

Beharrezkoa denean, indartu beharreko arloak identifikatuko ditu eta udal-aurrekontuetan sartu beharreko ekintza zehatzak proposatuko ditu.

Herritarren proposamenak ere landuko ditu talde hooeek.

- **Barrutietako Herritarren Batzarrak:** Pasaia 2030 Plan Estrategikoaren jarraipena egiteko barruti bakoitzean sortuko diren Herritarren Batzarrak aprobetxatuko dira. Horien zereginak hauek izango dira: batetik, plana nola gauzatzen ari den jarraipena egitea; eta, bestetik, emaitzak oinarri hartuta, hurrengo urteari begirako lehentasunak identifikatzea. Bestelako ohiko kanalak ere erabiliko dira emaitzen berri emateko eta ekarpenak jasotzeko, hala nola: web orria, sare sozialak, posta elektronikoa...
- **Ordezkeri politikoak:** ordezkeri politikoen ardura da udal aurrekontuen azken lanketa eta onarpena, eta, beraz, Pasaia 2030 Plan Estrategikoa gauzatzeko zein ekimen gauzatu diren erabakiko duen organoa da.

